



ALKIZAKO UDALA

## **UDALBATZARRAK 2024ko ABUZTUAREN 27AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

2024ko abuztuaren 27an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Ana Agesta Echecolonea Lehen Alkateordearen Lehendakartzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

LEHEN ALKATE ORDEA : Ana Agesta Echecolonea  
ZINEGOTZIAK : Unai Sorarrain Urruzola Urruzola  
Nagore Arizeta Garmendia  
Jose M<sup>a</sup> Aranzabe

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DU: Gillermo Otegi Zubillaga eta Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez

IDAZKARIA:

  
Ane Gomez Urteaga

.../...

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
  - ✓ **2024ko uztailaren 9an egindako ohiko bilkuraren akta.**
  - ✓ **2024ko uztailaren 16an egindako ez-ohiko bilkuraren akta.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Eudelek igorritako zirkularra onartzea, 2024ko ordainsari-igoerari buruzkoa 2024.01.01 ko ondorioekin.**
- 5. Aiztondo zerbitzuen mankomunitateari 2024 ko 3. eta 4. hiru hilabeteko ekarpenak burutzea.**
- 6. Alkizako Sormenaren kabia: bi beken esleipenak.**
- 7. Perubidea 1 zenbakian izandako ur isuriaren ondorioz sortutako arotz kalteen konponketaren ordainketa eskaera.**
- 8. 2024 urterako ura eta zaborraren tasaren hobari eskaeraren onespena, akats zuzenketa.**
- 9. Beste batzuk.**
- 10. Mozioak, erreguak eta galderak.**

.../...



ALKIZAKO UDALA

### **LEHEN PUNTUA**

#### **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENAK**

- 2024ko uztailearen 9ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.
- 2024ko uztailearen 16ko ez ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 64/2024tik 77/2024 arteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

EBA ERKIZIA	1.171,79
RACHID RADDACH, TALLERES AUTO	2.147,75
ITZOAR GARCIA URBIETA	400,00
KEY-LAN	23,09
RECAMBIOS IBARRA	19,60
ORANGE ESPAGNE	35,27
ULAHI ORONA	278,30
ULAHI ORONA	668,68
CORREOS	6,49
MAQUELSA	40,84
DIONISIO ORMAZABAL	80,91
CALPARSORO INDUSTRIAL	69,39
ARGITU-ASESORES	233,18
BERRI LANTEGIA	57,06
DEKOARBERAS	75,00



ALKIZAKO UDALA

NORTEGAS	110,03
NORTEGAS	266,15
NORTEGAS	5,31
GOIENER	82,81
IZFE	60,50
IZFE	7,60
ICETEC	199,65
KIROLZER	58,20
URAK SOLUCIONES TECNICAS AL AGUA	471,90
GIZA HEZIKETARAKO KALEXKA ELKARTEA	430,31
GUREAK MARKETING	1,19
IZFE	11,70
TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA	90,00
ZU ETA BIODIARI KOOPERATIBA	605,00
IZFE	38,24
IZFE	38,24
OTIS	523,48
ORANGE	225,24
SOLRED	190,54
LYRECO	21,54
ORANGE	223,69
ALKIZAKO HERRI OSTATUA	79,60
KUKU-LORE	18,81
KUKU-LORE	158,80
DA CAP. S.COOP. PEQUELA	302,50
GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALA	62,52
GOINER	86,19
GOIENER	104,05
GOIENER	18,51
GOIENER	32,96
GOIENER	19,88
GOIENER	160,20
GOIENER	27,85
GOIENER	732,84
GOIENER	10,88
GOIENER	14,56
GOIENER	158,11
GOIENER	19,22



ALKIZAKO UDALA

DEKOARBERAS	332,41
DEKOARBERAS	8,93
GISAT	129,47
GISAT	90,75
AZALA ESPECIO Y CREACIÓN	150,00
JUAN KRUZ IGARABIDE	150,00
ORANGE	35,27
MULTIHUERTO ECOLOGIA	1.256,84
MULTIHUERTO ECOLOGIA	84,53

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **13.214,35** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

#### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **EUDELEK IGORRITAKO ZIURKULARRA ONARTZEA, 2024KO ORDAINSARI IGOERARI BURUZKOA 2024.01.01 KO ONDORIOEKIN**

Ikusirik Eudel-ek eginiko gomendioa, non ondorengoa dioen:

#### **“2024ko ORDAINSARI-IGOEREI BURUZKO INFORMAZIO-ZIRKULARRA**

2024.06.25ean, ministroen kontseiluaren erabakiz, ***ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretua*** onartu zen, ***Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazkek eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko zenbait neurri luzatzen dituen eta zerga, energia eta gizarte arloetan premiazko neurriak hartzen dituen.*** (2024ko ekainaren 27ko BOE)

Sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsari-igoerei dagokienez, aipatutako Errege Lege Dekretuak, 6. artikuluan (esteka), hau arautzen du:

***“Sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsari-neurriak***

**6. artikulua. Sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsari-igoera 2024. urterako.**

***1.2024. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariek ehuneko 2ko gehieneko igoera globala izan ahal izango dute,***



ALKIZAKO UDALA

**2023ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, azken horietan barne hartuta 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bi.2 artikuluan aurreikusitakoaren ondoriozko igoerak, konparazioaren bi aldietarako homogeneousotasunari dagokionez, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzintasunari dagokionez. Ordainsari-igoera horrek 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.**

**2.Halaber, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria eta finkagarria aplikatuko da, hala badagokio, 2023ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean, baldin eta 2022., 2023. eta 2024. urteetako KPI harmonizatuaren aldaketaren baturak 2022., 2023. eta 2024. urteetako ordainsari-igoera finko metatua gainditzen badu. Horretarako, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) 2024ko KPI harmonizatuaren datuak argitaratu ondoren, igoera horren aplikazioa onartuko da Ministroen Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da (...)"**

Aurrekoa ikusita, eta EUDELeK aurreko ekitaldietako udaletako langileen ordainsari-igoerei dagokienez egin izan duen bezala, ordainsarien arloan egon daitezkeen interpretazioak argitze aldera, egokitzat jotzen da euskal udalei honako hau egitea:

### **PROPOSAMENA**

Baimendutako legezko maximoaren % 2ko igoera orokorra onartzea, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, **2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bi.2 artikuluan aurreikusitakoaren ondoriozko igoerak, konparazioaren bi aldietarako homogeneousotasunari dagokionez, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzintasunari dagokionez. Ordainsari-igoera horrek 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.**

6.2 artikuluan araututako % 0,5eko ordainsari-igoera gehigarri eta finkagarriari dagokionez, 2024ko KPI harmonizatuaren datuak Estatistikako Institutu Nazionalan (INE) argitaratu arte zain egon beharko da, eta geroago onartuko da igoera horren aplikazioa, Ministroen Kontseiluaren Akordioaren bidez. Akordio hori BOEn argitaratuko da, eta EUDELeK unean-unean emango dizue horren berri."

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DU:**



ALKIZAKO UDALA

LEHENA.- 2024 ekitaldirako, langileen ordainsariei buruzko EUDEL-ek egindako gomendioa bere osotasunean onestea eta aplikatzea. Hau da:

Baimendutako legezko maximoaren % 2ko igoera orokorra onartzea, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, **2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bi.2 artikuluan aurreikusitakoaren ondoriozko igoerak, konparazioaren bi aldietarako homogeneotasunari dagokionez, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzinasunari dagokionez. Ordainsari-igoera horrek 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.**

### **BOSTGARREN PUNTUA**

#### **AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2024KO 3. ETA 4. HIRU HILABETEKO EKARPENAK BURUTZEA**

Ikusirik 2024ko uztailaren 2an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2024 ekitaldiko 3. eta 4. hiru hilabeteetan sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Alkizako Udalak burutu beharreko ekarpena 12.500,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

- Gizarte zerbitzuak: 9.500,00 euro
- Kultura: 3.000,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela 2024 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partidetan.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

#### **ERABAKITZEN DUTE**

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 12.500,00 eurotako ekarpena burutzea 2024 ekitaldiko 3. eta 4. hiru hilabeteetan sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko. 2024 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partiden kargura. Kontzeptu hauetan banatuta:

- Gizarte zerbitzuak: 9.500,00 euro
- Kultura: 3.000,00 euro

BIGARRENA.- 12.500,00 eurotako gastua onartzea.



ALKIZAKO UDALA

### **SEIGARREN PUNTUA**

#### **ALKIZAKO SORMENAREN KABIA: BI BEKEN ESLEIPENAK**

Ikusirik 2024ko uztailaren 9an egindako ohiko Udalbatzarrean, Alkizako Sormenaren kabia: Deialdiaren hasiera eta oinarrien onspena ematea erabaki zela.

Ikusirik aipaturiko deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela, maiatzaren 28an, proposamenak aurkezteko epea ireki zelarik, uztailaren 1era bitartean.

Ikusirik Sormenaren kabiaren proiektuak baloratzeko 2024ko uztailaren 19an, Idoia Zabaleta, Miriam Loidi, Txiki Keixeta eta Juan Kruz Igarabide jaun/andreak osaturiko epaimahaia bildu zela. Ondorengo proposamena hartu zutelarik:

“Uxue Juarez eta Ada Garrués-ei esleitzea 2024 urteko Sormenaren Kabiaren bi bekak.”

Gaia azterturik Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### **ERABAKITZEN DU:**

LEHENA.- “Uxue Juarez eta Ada Garrués” sortzaileei Sormenaren kabiaren beken onuradunak izateko onspena ematea.

BIGARRENA.- “Uxue Juarez eta Ada Garrués” -i 1.000,00 euroko beka bana ematea eta bakoitzari Lete nekazaletxean 3 asteko egonaldia ordaintzea. Dagokion gastua onestuz, ordainketa udal aurrekontuetako 480.172.00.01 partidaren kontura egingo delarik.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

#### **PERUBIDEA 1 ZENBAKIAN IZANDAKO UR ISURIAREN ONDORIOZ SORTUTAKO AROTZ KALTEEN KONPONKETAREN ORDAINKETA ESKAERA**

Ikusirik Perubidea 1eraikinean ur matxura bat izan dela, hau konpondu ondoren, aroztegiko lanen faktura aurkeztu da. Ikusirik udalak Perubidea 1eraikinean bi lokal dituela, eta matxura eraikin guztiari eragiten diola, bertako administratzaileak Alkizako udalari egin beharreko ekarpenak igorri dizkio.



ALKIZAKO UDALA

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

**ERABAKITZEN DU:**

**LEHENGOA.-** Perubidea 1 eraikineko jabetza komunitateari 744,44 eurotako ekarpena burutzea, bertan izandako ur matxura konpondu ondoren aroztegiko lanen ordainsari modura.

**BOSTGARRENA.-** 744,44 eurotako gastuak onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea, udal aurrekontuetako 211.920.00.01 kontu sailaren kargura.

**ZORTZIGARREN PUNTUA**

**2024 URTERAKO URA ETA ZABORRAREN TASAREN HOBARI  
ESKAERAREN ONEPENA, AKATS ZUZENKETA**

Ikusirik 2024ko ekainaren 4ko udalbatzan 2024 urterako ura eta zaborraren tasaren hobari eskaerak onestu ziren.

Ikusita, aipaturiko erabaki horretan akats bat atzeman dela, non J.G. ri ura eta zabor tasetan %100eko hobaria onartu zitzaion, nahiz eta gizarte langilearen txostenean % 50eko hobaria aurrikusten zen.

Gaia azterturik, bertaratuek, gehiengoz, ondorengo,

**ERABAKITZEN DUTE**

**LEHENA:** J.G. jaunari ura eta zabor tasetan onartutako % 100 hobaria bertan behera uztea.

**BIGARRENA:** J.G. jaunari ura eta zabor tasetan % 50eko hobaria onartzea.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri interesdunei jakinaraztea.

**BEDERATZIGARREN PUNTUA**

**BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.



ALKIZAKO UDALA

**HAMARGARREN PUNTUA**  
**MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK**

Ez dira aurkezten.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 19:40 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*

IDAZKARIAK

